



UNITATE DIDAKTIKOAREN GIDOIA



PELIKULA IKUSTERA JOAN AURRETIK IRAKASLEAK IRAKURTZEKO

Fitxa teknikoa

Sinopsia

Proposamen
didaktiko hau
lantzeko aholku
metodologikoak



PELIKULA IKUSTERA JOAN AURRETIK IKASLEEKIN EGITEKO JARDUERAK

Filmaren azala eta
izenburutik abiatuta
elkarriktarako gida

Zinemaren garapena
eta animazio motei
buruz aipamen batzuk



PELIKULA IKUSI ONDOREN IKASGELAN EGITEKO LANA

Pelikula hitz batean

Pertsonaien deskribapena

Gidoiari buruz

Elkarrikteta sustatzeko
proposamenak:
Gure hiria, gure auzoa /
Adiskidetasuna / Familia
eta belaunaldiarteko
harremanak

Ariketa: Printze
Txikiaren collagea

Iradokizunak



**PELIKULA IKUSTERA
JOAN AURRETIK
IRAKASLEAK
IRAKURTZEKO**

FITXA TEKNIKOA

Izenburua: Printze Txikia

Jatorrizko izenburua: Le Petit Prince

Herrialdea: Frantzia

Produktorea: Orange Studio, Onyx Films, ON Entertainment, ON Animation Studios

Zuzendaria: Mark Osborne

Egokitzapena eta gidoia: Mark Osborne eta Irena Brignull

Aktoreen zerrenda: James Franco, Rachel McAdams, Jeff Bridges, Marion Cotillard, Paul Rudd, Benicio Del Toro, Paul Giamatti, Mackenzie Foy, Albert Brooks, Ricky Gervais, Bud Cort, Riley Osborne, Jacque Barnbrook, Jeffy Branion, Marcel Bridges

Urtea: 2016

Iraupena: 108 minutu

Jatorrizko liburuaren egilea: Antoine de Saint-Exupéry

SINOPSISIA

Neskatxa baten eta bere bizilagunaren arteko istorioa da. Bere amak helduen munduan bizi dadin prestatzen ari den Neskaxa eta bihotz oneko adineko pilotu bitxia protagonista dituen kontakizuna. Pilotuak bere lagun berriari edozer gerta litekeen aparteko mundua erakutsiko dio, Printze Txikiari esker orain dela urte asko ezagutu zuen mundua.

Hor hasiko da neskatilarentzat Printze Txikiaren unibertsoa eramango dion emozioz beteriko bidaia magikoa. Honek bere haurtzaroarekin bat egiten lagunduko dio. Garrantzitsuena giza harremanak direla eta ongien bihotzarekin ikusten dela ulertuko du, funtsezkoena begientzat ikusezina baita.

**PROPOSAMEN DIDAKTIKO HAU LANTZEKO
AHOLKU METODOLOGIKOAK**

Proposatzen dugun eredu metodologikoak gaitasun intelektuala eta kontzientzia soziala garatzea du oinarri. Ikaslearen ezagutza, sinesmenak, aurreiritziak eta izandako bizipenak izango dira abiapuntu, modu horretan, haien interes eta beharrek konektatuko baitugu, baina urrats bat gehiago ere emango dugu: ikaskuntza berriak barneratu. Aurrera pausu horiek ikasleek beraiek egingo dituzte taldean elkarrekin ikertuz, eta horixe izango da, hain zuzen, programa honen ezaugarri adierazgarriena, irakasleak ez baitie ezagutza zehatzik irakatsiko. Elkarrekin hausnartu, pentsatu eta hitz egin beharko dute taldearen ondorioak formulatu eta osatzeko.

Irakaslearen lana taldea bideratzea izango da, elkarrikteta horiek gerta daitezen beharrezko baldintzak ahalbideratzea.





**PELIKULA IKUSTERA
JOAN AURRETIK
IRAKASLEAK
IRAKURTZEKO**



Horretarako, honako orrialde hauetan, hainbat baliabide eskaintzen ditugu ikasgelan elkarriketa parte-hartzailea eragiteko, eta zenbait galdera irakasleak elkarriketa sustatzeko eta gidatzeko baliabideak dituzan. Esan beharrik ez dago, irakasle bakoitzak erabakiko duela horietako zein erabili, zein ez edota baten bat erantsi nahi ote duen. Jarduera errazteko galderen zerrenda bat aurkezten dizuegu, ikasgelan elkarriketa arakatzailerak sustatzeko baliagarri gerta daitekeena:

ARAKATU

Nola jakin dezakegu...?
Nola bila dezakegu...?

HIPOTESIAK FORMULATU

Zer azalpen izan dezake honako honek?
Zer gertatuko litzateke baldin eta...?

BESTE BIDE BATZUK BILATU

Zer beste modutan azal dezakegu...?
Zeini bururatzen zaio beste konponbide bat?

DEFINITU

Hitz hori erabiltzen duzunean, zer esan nahi duzu?

PAREKOTASUNAK ETA DESBERDINTASUNAK BILATU

Zer dute amankomunean...?

SAILKATU

Zenbat modutan sailka dezakegu?

ARRAZOIAK ESKATU

Zer arrazoi duzu honako hori esateko?

ONDORIOAK ATERA

Baieztape hori egia bada, zer ondoriozta dezakegu?

KAUSAK ETA ONDORIOAK ERLAZIONATU

Hori gertatzen denean, zein dira ondorioak?

HITZEZKOA EZ DEN HIZKUNTZATIK HITZEZKORA ITZULI

Zer adierazi nahi du keinu horrek?

LABURTU

Hitz gutxitan azal dezakezu...?

Metodologia-proposamen zehatz honek elkarriketa du oinarri beraz, azken batean, etika biziaren trebakuntza bat da. Bizikidetzarako, pertsonen arteko errespeturako eta garapen intelektualerako beharrezko prozedurak eta jarrerak martxan jarri daitezke elkarriketaren bidez; beste pertsonaren iritzia eta hitz egiteko txanda errespetatzen dugu, eta entzuteko gaitasuna eta pazientzia trebatzen ditugu; gure iritzia argudiatzen eta gure kideek zer pentsatzen duten hobeto eta sakonago ikasten dugu (modu honetan errazago zaigu haiek ulertzea eta haiekiko enpatia izatea).



**PELIKULA IKUSTERA
JOAN AURRETIK
IKASLEEKIN EGITEKO
JARDUERAK**



FILMAREN AZALA ETA IZENBURUTIK ABIATUTA ELKARRIZKETARAKO GIDA

Pelikula Saint-Exupéryren “Printze Txikia” liburuaren egokitzapena da. Liburuaren eta pelikularen azalak alderatzeko galderak egin ezazakezu bertan gertatuko denari buruz?

- 1. Nor da nobelaren egilea?**
- 2. Nor da pelikularen egilea?**
- 3. Nor da nobela zine gidoira egokitu duen gidoilaria? (Mark Osborne)**
- 4. Zer daukate komunean bi azalek?**
- 5. Pelikulako horma-iruditik abiatuta (hizkiak, irudiak, koloreak...), zer hipotesi egin dezakezu bertan gertatuko denari buruz?**



2

**PELIKULA IKUSTERA
JOAN AURRETIK
IKASLEEKIN EGITEKO
JARDUERAK**

**ZINEMAREN GARAPENA ETA
ANIMAZIO MOTEI BURUZ AIPAMEN BATZUK**

1. Ikus dezagun lehenengo **bideo hau** animazio zinemaren garapena ulertzeko.

2. Historia pixka bat:

Animazio zinemaren hastapenek **zinemaren historia** berarekin bat egiten dute. Teknika hau dagoeneko ezaguna zen XIX. mende bukaeran eta **Georges Méliès**ek erabili zuen lehen aldiz 1896an: ***Viaje a la luna***.

Segundo de Chomón espainiarra izan zen teknika hau erabiltzen aitzindarietako bat, ***La casa encantada*** (1906) eta ***El hotel eléctrico*** (1908) filmetan erabili zuen.

Ladislaw Starewicz, zinemagile errusiarrak, **1912an** ***La venganza del camarógrafo*** pelikula egin zuen.

Stop motion delakoa, pixkanaka hobetuz joan zen besteak beste Willis O'Brien-en eskutik ***King Kong und die weisse Frau*** (1933) filmean.

Ray Harryhausen, bere ikaslea izan zen eta 50. hamarkadan teknika aberastu zuen, beranduago, 80. hamarkadan, ***Terminator***, ***Star Wars*** (IV. ataletik VI. atalera) edo ***Furia de Titanes*** bezalako filmetan erabiliko zena.

Hamarkada horretan, stop motion-a **Tim Burton**-ek erabili zuen **Walt Disney**-en estudioetan **animatzaile** bezala lan egiten zuenean, **1982an**, ***Beetlejuice*** (1988) eta ***Corpse Bride*** (*La Novia Cadáver*, 2005) bezalako pelikulak zuzentzen hasi zen arte.

Aardman Animations produktorearen beste ekoizpen handi batzuk dira ***Wallace and Gromit*** eta ***Chicken Run***.

3. Irakurri ditzagun animazio zinema mota desberdinen laburpenak eta **ikus** ditzagun dagozkien bideoak irudikatu duguna ikusten dugunarekin bat datorren jakiteko (*lehenengo hiruak gutxienez ikustea aholkatzen dizuegu*).

A.

Marrazki
bizidunak

B.

Stop
motion

C.

Go
motion

D.


Rotoskopia

E.

Paper edo beste
material batzuen
zatiekin egindako
animazioa

F.

Beste teknika
batzuk





2

**PELIKULA IKUSTERA
JOAN AURRETIK
IKASLEEKIN EGITEKO
JARDUERAK**



A.

Marrazki
bizidunak

2D edo ohiko animazio bezala ezagutzen dira ere eta **karratu bakoitza marraztuz sortzen dira**. Argazki sekuentzia bisual bat da eta bera osatzen duten fotograma guztiak eskuz margotuz lortzen da. Honek mugimenduan dauden irudien pelikula sortzen du.



B.

Stop
motion

Geldi dauden objektuen mugimendua simulatzen du, argazkiz-argazki mugimenduaren irudipena harrapatuz.

Teknika hau eskuzko animazio bezala ezagutu zitekeen objektua eskuekin lantzen delako (fotogramaz fotograma) azken proiektzioan bere kabuz mugitzea lortzen den arte. Bi stop-motion animazio nagusi daude: plastilina / txotxongilo / latex panpinen... animazioak eta objektuen animazioa.

C.

Go
motion

Kasu honetan modelo edo objektuari mugimendua eragiten zaio argazkiak ateratzen zaizkion bitartean. Go motion teknikarekin, objektu edo modelo bizidunen mugimendu irudipenak benetakoa dirudi eszena pantailan ikusten dugunean.






2

**PELIKULA IKUSTERA
JOAN AURRETIK
IKASLEEKIN EGITEKO
JARDUERAK**

D.
Rotoskopia



Aurretik filmatutako erreferentzia baten gainean marraztean lortzen da. Pertsona erreal bat grabatu eta fotograma horiek animatzailearen mahaigainean proiektatzen dira. Bertan argazkiak (erreferentziatzako irudi bezala) berriro marrazten dira pertsonaiaren mugimendu erreala nolakoak izango liratekeen pentsatuz. **Walt Disney-k ezagutarazi zuen teknika hau Edurnezuri eta zazpi ipotxak** luzemetraiaren hainbat pasartetan.

E.

Paper edo beste material batzuen zatiekin egindako animazioa

Paperetik, kartoitik edo argazkietatik moztutako irudiak erabili daitezke.

Pertsonaien gorputzak eraiki egiten dira (mugitu daitezkeen atalak moztuz) eta animatzaileak atal desberdinen kokapena aldatzen du pertsonaiari bizia emanez.



F.

Beste teknika batzuk

Hemen sartzen dira ekintza estatiko baten bidez mugimenduan dauden irudiak sortzeko modu guztiak, hau da, material bati argazkiak atera eta argazki horiekin animazio bat sortzea.

Pertsona gutxi batzuk erabili dituzten animazio teknika asko **daude. Ondorengoak dira ezagunenak:** Area erabiliz sortutakoa, kristalen gaineko margoa, jostorratzak, zeluloidearen gaineko margoa, ur tantak, graffitiak, kakahueteak, txigortutako ogia....





**PELIKULA IKUSI
ONDOREN
IKASGELAN
EGITEKO LANA**



PELIKULA HITZ BATEAN

Borobilean eserita ikasleei pelikula zer iruditu zaien galdetuko diegu. Partaide bakoitzak **hitz bat** erabiliz erantzun beharko du eta arbelean idatzi (emaitza guztiak bertan daudenean argazki bat aterako dugu collagearen ariketan erabiltzeko). Denbora badago, interesgarria izan daiteke, ariketa baino lehen eta laguntza modura, arbelean adjektiboen zerrenda egitea guztion artean.

Pelikula ikustera joan aurretik zineman animazioa egiteko erabiltzen diren teknika desberdinez hitz egin genuen. Ikusi genituen adibideetatik zein teknika erabili dute edo erabili dituzte Printze Txikia egiteko?

Mark Osborne zuzendariak ondorengo esaten digu:

“Animazioa egiteko bi modu desberdin erabili dira; bata digitala, neskatoaren bizitza errepresentatzeko, eta bestea, fotogramaz fotograma animazioa eginez filmatutakoa, bere irudimena errepresentatzeko”

“Dekoratuak, adibidez, papera erabiliz egin ziren; sekuentzia ugari daude soilik paperarekin eginak eta akuarelaz eta papier machézko txotxongiloaz ilustratuak. Honek soiltasuna eta jatorrizko marrazkien errealismoa mantentzea eragiten du”.

PERTSONAIEN DESKRIBAPENA

Borobilean eserita jarraituko dugu. Ondorengo taula izan dezakegu arbelean marraztua. Zutabe batean pertsonaien izenak idatziko ditugu, beste batean deskribatu egingo ditugu eta hirugarrengoa errepresentatzen duten balio etikoa ipiniko dugu. Aurreko ariketan egin dugun bezala, ikasleen parte hartzea bultzatu eta norbait zer esan jakin gabe gelditzen bada nora jo izan dezan, balio etikoen zerrenda aurrez prestatua izan dezakegu:

*Ez ahaztu jarduera
eta emaitzen
argazkiak
ateratzea
collagearen
ariketan
erabiltzeko*

AITONA HEGAZKINLARIA

AMA

NESKA

AZERIA

LARROSA

BOA

**HEGAZKIN
TXIKIA**

IZARRAK

Nolakoak dira?

Balioak¹

¹ Balioen zerrenda: Laguntasuna, maitasuna, partekatzea, kontzientzia hartzea (zerbaitetaz konturatzea), samurtasuna, elkarriketa binkuluak sortzeko balio bezala (frantsesezko 'apprivoiser' hitzetik), duintasuna, umiltasuna, justizia, errespetua, erantzukizuna, elkartasuna, tolerantzia, ausardia





**PELIKULA IKUSI
ONDOREN
IKASGELAN
EGITEKO LANA**



'Hezitu' edo 'etxekotu' hitzak frantseseko 'apprivoiser'-etik itzuli ditugu. Bere esanahia, hezitzeaz edo etxekotzeaz gain, loturak sortzearena da. Honek konnotazio positiboa dauka, 'etxekotzeak' negatiboa izan dezakeen bitartean (menperatze bezala ulertua).

GIDOIARI BURUZ

Ondorengo galderak egin ditzakegu:

1. Zertaz hitz egiten du pelikulak? (Erantzunak jasotzeko aukera bat izan daiteke, kasu honetan, lana bakarka eta idatziz egitea).
2. Zein izan da gehien gustatu zaizuen eszena? Zergatik? (Ikasleek bigarren galdera honi ematen dizkioten erantzunen arabera, taldean, guztion artean gai horiei buruz hitz egiten joango gara. Irakasleak elkarriketa sortu eta gidatzeko galderak egingo ditu. Lerro batzuk beherago, gure hiria, gure auzoa, adiskidetasuna eta familia eta belaunaldiarteko harremanak kontzeptuei buruz taldean hausnarketa egiteko proposamenak aurkezten ditugu adibide modura).
3. Guztion artean, elkarrekin komentatzeko esaldi batzuk:

"Ongien bihotzarekin ikusten da funtsezkoa dena begientzat ikusezina baita"

"Pertsona heldu guztiak hasiera batean haur izan ziren (gutxi batzuk oroitzen duten arren)"

"Zuk hezitzen edo etxekotzen banauzu, batak bestearen beharra izango dugu. Zu niretzako bakarra izango zara munduan. Zuretzat ni bakarra izango naiz munduan..."

"Hezitu edo etxekotu" hitzei dagokienez, ¿gogoratzen duzue nork esaten dion Printze Txikiari "hezitu nazazu"?"

- Zer esan nahi du hezitzeak edo etxekotzeak?

- "Ahaztua dagoen zerbait da"
- esan zuen azeriak. -"loturak sortzea esanahi du".





**PELIKULA IKUSI
ONDOREN
IKASGELAN
EGITEKO LANA**

**ELKARRIZKETA SUSTATZEKO
PROPOSAMENAK**

Gure hiria, gure auzoa

1. Nolakoa da neskatoa eta ama bizi diren hiria? Benetakoa da? Zer da hiri horretatik gustuko duzuen? Eta gustuko ez duzuen? Horrelako lekuren bat ezagutzen duzue?
2. Zuen hiriak pelikulan agertzen den hiriaren antza dauka? Eta zuen auzoak? Zertan bai eta zertan ez?
3. Nolakoa izango zen pelikulako auzoa etxe moderno horiek eraiki aurretik?

Adiskidetasuna

1. Nortzuk egiten dira lagun filmean?
2. Zer ekarpen egiten diote elkarri lagunek pelikulan? Adibidez, Printze Txikiak eta azeriak?
3. Nola aurkitzen du Printze Txikiak laguntasuna? Eta zuek? Nola egin zineten elkarren lagun?
4. Laguntasunak, zer sentimendu biltzen ditu?



**Ama
eta alaba**

Familia eta belaunaldiarteko harremanak

“Pertsonaien deskribapena” ariketan esandakoa gogoratuko dugu.

1. Nolako harremana dute elkarren artean?
2. Zer uste duzue nahi duela amak alabarentzat? Eta nola uste duzue bizi duela alabak hori?
3. Zer jarrera dauka alabak? Neska arduratsua da? 8 urteko neskato bati dagokion portaera dauka?



Aitona
hegazkinlaria
eta neskatoa



3

**PELIKULA IKUSI
ONDOREN
IKASGELAN
EGITEKO LANA**

4. Zer ekarpen uste duzue egiten diola aitona hegazkinlariak neskatoari? Eta neskatoak aitonari?
5. Zer ekarpen egiten dio aitona hegazkinlariak amari? Eta amak aitonari?
6. Zeintzuk dira beharrezko osagaiak norbait familia izateko?
7. Zergatik uste duzue auzoan inork ez duela nahi aitona hegazkinlariarekin hitz egin? Uste duzue beti izan dela horrela?
8. Zuen auzoan, aiton-amonak daude? Beraiekin hitz egiteko ohitura duzue? Noizbait beraien bizitzaz hitz egin dizuete?

ARIKETA: PRINTZE TXIKIAREN COLLAGEA

Ikasleei pelikularekin lotutako irudiak, argazkiak, esaldiak....ekartzeko eskatuko diegu. Material honi saioetan zehar ateratako argazkiak gehituko dizkiogu eta guztion artean, esperientziaren oroigarri bezala geldituko zaigun collagea sortuko dugu. Bertan nahi duguna marraztu edo idazteko aukera izango dugu ere.



Amaitutakoan emaitzari argazkia atera edo eskaneatu eta Giza Eskubideen Zinemaldiko antolakuntzara bidaliko dugu, **zinema_gizaeskubideak@donostia.eus** Donostiako Udaleko Giza Eskubideen sailera, hain zuzen.

IRADOKIZUNAK

Antoine de Saint-Exupéry-ren "Printze Txikia" nobela irakurri eta ikasleek berehala pelikularekin lotuko dituzten jatorrizko ilustrazio eta testuak aztertu.